



ERRENTERIAKO UDALA

ERRENTERIAKO UDALA ETA "HAMAICA TELEBISTA"-REN (DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.) ARTEKO HITZARMENA ZUZENENKO DIRU-LAGUNTZA EMATEKO

Bi mila eta hamaseiko apirilaren 27an

BILDU DIRA:

Alde batetik, Garazi Lopez de Etxezarreta, Errenteriako Udaleko Hizkuntza Politika saileko zinegotzi eskuordetua.

Eta bestetik, Iñaki Uria Manterola 15947386-Z NANA duena.

PARTE HARTZEN DUTE

Lehenengoak Errenteriako Udalaren izenean, Tokiko Araubidearen oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legean emandako eskumenez baliaturik, eta Alkateak eginiko eskuordetzeari jarraiki, 601 zenbakiko Dekretuaren bidez, 2015eko ekainaren 19koa.

Bigarrenak bere izenean eta Donostialdea Ikusentzunezkoak S.A.-ren ordezkaritzan, IFZ 15947388Z duena,

Bi alderdiek elkarri, nahiko gaitasuna aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako

AZALTZEN DUTE

Errenteriako Udalaren xedea da, besteren artean, gure udalerrian euskararen erabilpena sustatzea eta bermatzea herritarren artean. Hein berean, DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.ren xedea da euskararen erabilpena hedatzea telebista eremuan.

Euskara esparru ezberdinetara zabaltzen doan hizkuntza dugu zorionez eta azken urte honetan, tokiko informazioa ere telebistaz eskaintzeko pausua eman da. Urte asko pasa baldin badira ere, dagoeneko Errenteriako informazioa ere eskuragarri dago euskaraz HAMAICA TELEBISTAREN bidez.



ERRENTERIAKO UDALA

Baina, jakina, euskaraz ekoiztea gain-kostuz beteriko jarduera da, oraindik orain, gaur egungo errealitatean. Bistan da, gaur egungo gizarte modernoak euskararen zabalkundeari teknologia berrietan puntan aritzea eskatzen diola eta telebista berez produktu ikaragarri garestia baldin bada (eskatzen dituen giza baliabide zein tresnerian) ibilbide horretan euskaraz ekoiztu eta aritzeak gain-karga nabarmena sortzen duela. Euskarazko komunikabideen (eta telebistarena are gehiago) merkatua oraindik ere ez dago normalizatu eta, ondorioz, ezinezko bihurtzen zaie erdarazko beste komunikabideek dauzkaten sarrerak lortzea.

Bide horretan, DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A-ren sorrera-arrazoirik nagusienetakoa izan da, nagusiena ez esatearren, euskararen normalizazioa ikus-entzunezkoetara eramatea eta era berean, euskaldun komunitateari zein euskararen normalizazioa bilatzen duen orori zerbitzu bat eskaintzea.

Donostialdea Ikusentzunezkoak S.A-k Hamaika Telebistarekin 2016 urterako duen egitasmoa aurkeztu du, eta aurkeztutako dokumentaziotik eratorzen da proiektu bera ez dela ekonomikoki bideragarria Administrazio Publikoen aldetik diru-laguntzarik ez badu.

Udal Hizkuntza Politika departamentuak positiboki baloratu du Hamaika Telebistaren 2016 urteko egitasmoa, eta zentzu horretan 2016ko apirilaren 18an euskara teknikari koordinatzailearen txostena eman du.

Errenteriako Udalak Donostialdea Ikusentzunezkoak.S.A-k duen proiektua, Hamaika Telebista komunikabidea, babestu nahi du, Errenterian euskararen erabilera normalizatzeko duten garrantziarengatik, eta horregatik diru-laguntza emateko lankidetzat hitzarmen bat sinatzea proposatu du.

Hizkuntza Politika Departamentuko zinegotzi ordezkariaren dekretu bidez, Donostialdea Ikusentzunezkoak.S.A.-ri helburu horiek gauzatzearren zuzeneko diru-laguntza emateko akordioa hartu da. Horretarako oinarritzat hartu da azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a artikuluan eta Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 11.1. a artikuluan jasotakoa.

Azaldutakoaren arabera Errenteriako Udalak eta Donostialdea Ikusentzunezkoak S.A erabaki dute lankidetzat hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldeen baldintzak eta konpromisoak diru-laguntza ematea burutu dadin.



ERRENTERIAKO UDALA

KLAUSULAK

Lehenengoa: Hitzarmenaren xedea

Tokiko Telebista Digitalaren bidez, Errenteriarrei ikus entzunezko ekoizpenak nahiz informazioa euskaraz eskainiko zaizkie. Horretarako, euskaraz tokiko informazioa landu, ekoiztu, euskara azken teknologietan trebatu eta produktu ezberdin ugari euskaratzeak dakartzan gain kostuak arintzea da dekretu bidez emaniko diru-laguntzaren nondik norakoak zehazten dituen hitzarmen honen xedea.

Bigarrena: Aurrekontua eta finantziak

Diru-laguntza 7.000 eurokoa izango da, eta 2016ko Aurrekontu Orokorrean aurreikusita dagoen (6264)1001.471.02.335.10. partidako A-611-2016 zorpekoaren kontura. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da Errenteriako Udalaren Aurrekontua Orokorrean 2016. urterako.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena

Lankidetzeta hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean eta 2016ko abenduaren 31n amaituko da.

Laugarrena: Errenteriako Udalaren konpromisoak

Hitzarmen honi jarraiki Errenteriako Udalak harturiko konpromisoak honakoak dira:

- Diru-laguntzaren %80a (5.600 euro) hitzarmena sinatzerakoan ordainduko da.
- Diru-laguntzaren %20a (1.400 euro) proiektuari buruzko memoria eta justifikazioa aurkeztutakoan ordainduko da.

Bosgarrena: Donostialdea Ikusentzunezkoak S.A-ren betebeharrak

Hitzarmen honi jarraiki diru-laguntzaren pertsona onuradunak harturiko konpromisoak honakoak dira:

- Proiektua garatuko du, eta urtean zehar egin asmo dituen egitasmoak aurkeztuko dizkio Udalari. Zehazki hurrengo ekintzak egin eta koordinatuko ditu:

Hamaika Telebistak hitzarmen honen bidez gutxienez 15 orduetik gorako ekoizpen propioa egingo du euskaraz, astean eta programazioaren barruan, kultura, kirola eta



ERRENTERIAKO UDALA

gizarte gaiak jorratzeaz gain, aktualitatea diren erakunde publiko ezberdinen informazioa ere bermatuz.

Herri edo eskualde mailako informazioaren esparruan, eta ikus-entzule gazteen arreta erakartzeko, ikuspegi edo gai berritzaileak bilatuko ditu.

DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.Ak bere web orrian txertatutako Errenteriako Udalaren inguruko berri edo bideo guztiak hartu ahal izango ditu Errenteriako Udalak bere web orrian txertatzeko.

b) Azaroaren 17ko dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorraren 14 artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

- Xedea beteko du, proiektua gauzatu du, jarduera burutu edo diru-laguntza emateak oinarritzen duen jarrera hartuko du.

- Diru-laguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta diru-laguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.

- Frogatu beharko du egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.

- Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.

- Jasoriko diru-kopuruen aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.

- Jasoriko diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako egoerak gertatzen badira.

c) Diru-laguntzaren onuradunak diruz lagundu beharreko 10.440 euroko (BEZa barne) diru-kopurua izango balu ekipamendu-ondasunak hornitzeko edo aholkularitza edo laguntzako enpresa zerbitzuek emateko, gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko lituzke, eta hala egin duela jasota utzi beharko luke.



ERRETERIAKO UDALA

d) 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan aurreikusiriko klausularen batean sartu gabe egotea.

e) Euskararen alorreko klausulak:

- Idatzizkoari dagokionez:

- Hizkuntza paisaia:

- Errotuluak, oharrak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

- Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak elebietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

- Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharrak eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

- Harremanak Administrazioarekin: diru-laguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen diela.

Ahozkoari dagokionez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki hurrekin egiten direnetan aritzen direnek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean-euskara hutsez egingo dira euskararen erabilera sustatuko da.

Elkartek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

f) Berdintasunerako klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koa,



ERRETERIAKO UDALA

ezarririko oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako.

Dokumentazioa guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol era genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte

g) Ingurumenaren alorreko klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurreztea (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) zaratak sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea

Paperezko euskarrian Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, % 100ean birziklaturiko papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeak inprimatuak.


Seigarrena: Diru-laguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa

Errenteriako Udalak Hizkuntza Politika Departamentuko teknikari-koordinatzailearen bitartez, jarraipena egingo du eta diru-laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo izateko helburua bete dela.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, 2016ko otsailaren 28a baino lehen, Errenteriako Udalean aurkeztu beharko du diru-laguntzak xede duen proiektu/jardueren garapenaren memoria bat. Bertan buruturiko jardueren azalpen memoria bat egingo da, izaniko diru-sarreraren eta gastuen balantzea barne, hala nola egindako gastuak justifikatzeko ordain-agirien edo dokumentuen kopia bat.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, diru-laguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako dirulaguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu





ERRENTERIAKO UDALA

beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste diru-laguntza publikoekin

Hitzarmen honek arautzen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, diru-laguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Errenteriako Udaletik eta/edo bertako patronatuetatik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo diru-laguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo patronatuek diru-laguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.


Zortzigarrena: Hitzarmenaren baldintzak aldatzea

Diru-laguntzaren entitate onuradunak Errenteriako Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, hitzarmena hau aldatzea ezarritako epeak zabaltzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere diru-laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Errenteriako Udalak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

Bederatzigarrena: Hitzarmena ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea

Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du hitzarmena berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua ezeztatzea, gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean, eta berau garatzeko araudian, abenduaren 17ko 38/2003 Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan eta Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantzan (2015eko abuztuaren 10eko G.A.O. -150. zkduna.-). Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.





ERRENTERIAKO UDALA

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arazoak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

Hamargarrena: Datu pertsonalak babestea

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 lege Organikoak ezarritakoa betetzea.

Hamaikagarrena: Lan arriskuen prebentzioa

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.


Hamabigarrena: Araubide Juridikoa

Lankidetzaren hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen buruzkoa.

Hamairugarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena





ERRENTERIAKO UDALA

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzen dute, hiru aletan eta eragin bakarrerako, idazburuan adierazten den datan.

HAMAIKA TELEBISTA
DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.
Iñaki Uria Manterola

UDAL HIZKUNTZA POLITIKA
ZINEGOTZI DELEGATUA
Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi



HERRI BIZIA

Errenteriako
udal komunikabidea

herribizia.errenteria.net

